

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Urtarrilak 17  
Ostirala  
Alea: 670  
[www.hkronika.com](http://www.hkronika.com)

## ALDE ZAHARRA BERRITZEKO OBRAK



Urbieta kaleko kontenedoreak eta Nafar kalekoak lurpean geldituko dira.

### Tilosetako plaza

Nafar

Kalea

I  
z  
p  
i  
z  
u  
a  
k  
a  
l  
e  
a

Urbieta kalea

Berrituko dituzten kaleak

## Azken faseko obrak astelehenean hasiko dira

■ Kaskoa berritzeko hirugarren fasean Urbieta, Iturriaga eta Nafar kaleko zatiak berrituko dituzte ■ Obrak bost hilabete inguru iraungo dute ■ Astelehenetik aurrera kale horietan trafikoa itxita egongo da.

ALDE Zaharra berritzeko hirugarren faseko obrak astelehenean honetan hasiko dira, Hirigintzako informazioaren arabera. Aurreko faseetan bezala, obra honetan ere azpiegitura eta saneamendua erabat berrituko dira: tele-

fono eta instalazio elektrikoak, fibra optikoa sartzeko leku, alkantara, edateko uraren azpiegitura, gasa, espaloiak kentu eta granitozko lurrak jarriko dituzte. Iluminazioa ere berria jarriko da.

Urbieta eta Nafar kalean

zaborra biltzeko sistema berria jarriko du Udalak: kontenedoreak lurpean sartuta jarriko ditu kontenedore bereziak jarriko dituze.

Manuel Fraile Hirigintza buruak Kronikari adierazi dienez, obra bost hilabete inguru-

an bukatuta egongo da. Obraren aurrekontua 581.906 euro dira.

Bestalde, Kaxko elkartek datorren asteazkenerako bilera deitu du, 20:00etan Biterin. Besteak beste, hirugarraren faseaz hitz egindo da.



Igandearen Errugbi kanpoan ibiliko dira gazteak korrika.

### ATLETISMOA

## 'Adarraga Memoriala' gazteentzako krossa igandean, Landaren

■ Probak goizeko 10:30etan hasiko dira ■ Krossa Klub Deportibo Hernanik antolatu du ■ Izen ematea, ateera.

HERNANIKO 56garren krossa igande honetan jokatuko da, Landareko errugbi zelaietan baino. Krossa kategoria alebin eta infaltileko atleta gazteentzat da, eta proba Gipuzkoa osoko korrikalarientzat dago zabalik.

Klub Deportibo Hernaniko Atletismo sailak antolatzen du proba eta atletismo gaztea bultzatzea du helburua. Aurreko urteetan 150-200 atleta inguru ateria izan dira.

Lau karrera Adarraga Memorialean lau karrera izango dira, kategoria bakotzko bi. Aurreneko karrera alebis neskek izango dute: 10:30etan hasiko da eta 1.800 metro egin beharko dituzte. 10:45etan, alebin mutilak aterako dira, eta horiek ere 1.800 metro egingo dituzte. 11:05etan, infantil nesken txanda izango da, 2.200 metroko distantzian, eta 11:30etan, infantil mutilak, 2.700 metrotan.

## Sei bertsolari gaur tabernetako txapelaren bila

URTERO, San Sebastian bueltan, tabernetako bertsolari txapelketa egiten da. Gaur sei bertsolari arituko dira Garin tabernankantari, giro ederra jarri, txapel beltzaren bila: Jon Altuna Oxan (iazko txapelduna), Xabier Santamaría Xanta, Jon Garmendia Txuria, Mikel Lujanbio Xapo, Unai Muñoz eta Esteban Martíarena. Txapelketa gauero 22:30ak aldera hasiko da. □

### TXANTXANGORRI

## Ehiza txapelketako sari banaketa

TXANTXANGORRI elkartea gaur afalondoan banatuko ditu Hernanikoa ehiza txapelketako sariak. Onena Iñaki Loarte izan zen, aurreko txapelketan bezalaxe; bigarren, Juan Mari Ugalde; eta hirugarren, Emilio Crespo. □

## Isa Aristimúñori ongi etorri afaria Xalapartan egingo zaio

ISA Aristimúñori hernaniarrari ongi etorria egingo zaio bihar. Arratsaldean 19:00etan izango da ekitaldia Tilosetan, eta gero herri afaria izango da Xalaparta elkartean (ez Santa Barbaran). Afari txartelak Oindi eta Garin tabernetan daude. □

### Pelota partiduak gaur

GAUR bi partidu jokatuko dituzte Hernanikoa pelotariak. Gipuzkoako ligan infantilek, 19:30etan Antzuolan Olalde/Ezeiza-Grajal eta Euskadiko Txapelketan helduak, 22:15etan Anoetan: Kukul/Mansisidor Martinez. □

### ZINEA BITERIN

## '8 mujeres' eta 'El planeta del tesoro' asteburuan

GAUR 8 mujeres, 22:30etan. □

S  
A  
N  
S  
O  
Leku  
N  
atsegina  
A  
T  
E  
G  
I  
O  
tordu  
atseginerako  
T  
X  
E  
A  
M  
artindegia auzoa  
943 33 15 72  
943 55 32 60

J  
A  
T  
E  
E  
San Sebastian bezperako menu berezia:  
Bellota urdaiazpikoa  
Xapoa eta ganbezin entsalada  
Almejak marinera erara  
Vichysoice  
Xapua refritoarekin  
Solomilloa plantxan guarniziona-  
rekin, Postre degustazioa  
Edariak: Bezegain Crianza,  
Chivite rosado, ura eta Cava  
47 euro + %7ko BEZ  
eta jo tanborrak....

HORBEL jatetxea  
Bokata, pintxoak,  
razioak, platerak,  
entsaladak, sandwichak,  
hanburguesak  
Etxeraino eramango dizugu.  
Eskatu!  
Lizeaga kalea 4  
Tel.: 943 33 33 95



LARRE-GAIN  
Tolare-  
Sagardotegia

Gaur ostirala, zabalduko dugu txotx denboraldia.

Zatoz sagardo berria edatera!

Sagardo naturala urte osoan botilan salgai

## SAN MARKOS MANKOMUNITATEAREN HONDAKIN PLANA 2002-2016



San Markoseko teknikoak eta lehendakaria, eta Hernaniko Alkatea eta zinegotzi bat, Biterin.

## Zabor gutxiago sortu eta gehiago 'reziklatzea' proposatu zuen San Markos Mankomunitateak

■ Europako legea geroz eta zorrotzagoa da eta horretara egokitu behar du basuraren gestioak ■ Bertederora ahalik eta zabor gutxiena iristeko plana egin dute.

SAN Markos mankomunitateak asteazkenean aurkeztu zuen Hernanin 2002tik 2016ra hondakinak kudeatzeko proposamena. Plan berria egiteko bi arrazoi daude: Europako araudia geroz eta zorrotzagoa dela eta San Markoseko bertederoa 2006rako betea egingo dela.

### Berziklatu eta konpostatu

Planaren helburu nagusiak dira basura gutxiago sortzeko kampainak bultzatze eta sortzen denetik parte haundiagoa berziklatu eta konpostatzea. *Reziklatzea* bultzatzeko, basurak aparte biltzeko kontenedore gehiago jarriko dituzte, besteak beste. Horrez gain, poligonoetan ere ba-surak gaika biltzen hasiak dira edo San Markosera basura on-do sailkatuta eramatzen duten udalei askoz tasa bajuagoak

kobratzen dizkiete, adibidez. 2016rako sortutako basuraren % 41 berziklatzea nahi da.

Materia organikoa, berriz, konpostatzea proposatzen du planak. Konposta jardineritzarako edo baratzarako lur bezala erabiltzen da. Ez da, ordea, materia organiko guztia konpostatuko, merkatuan saltzea lortzen den adina konpostatuko da. Konpostatzeko kalidade oneko materia organikoa behar da eta orden honetan erabiliko dute materiala, beharraren arabera: jardinetako belarra eta adarrak; katerin, jatetxe, merkatu eta abarretatik ateratako materia organikoa; eta leku urbanoetan bildutako materia organikoa. Gaur egun jardineritzako materia organikoa konpostatu eta erabiltzen da, eta jatetxe, merkatu eta abarretatkoak konpostatzen hastekoak dira. (Gasteiz kalea 10, Donostia). □

2016rako basuraren % 4 konpostatu egin nahi da.

**Energia lortzeko, inzineratu** Berziklatu ez diren hondakinak erre egingo dituzte eta hortik energia atera. Erre ezin dena eta erraustean lortzen den hondakina izango da bertederora botako dutena. Inzineradoraren kapazitatea basura guztiaren % 60 erretzeko adinakoa izango da gehienez; hartara behartuta egongo da San Markos % 40tik gora berziklatzera.

Proposamena bere osotunean azaltzen eta jendearen iritzia jasotzen ari dira orain San Markoseko arduradunak, eta behin bilerak bukatzean plan definitiboa egingo dute. Norbaitek proposamenik badu San Markosera bideratu lezake (Gasteiz kalea 10, Donostia). □

## ESKOLA KIROLA

## ASTEBURUKO PARTIDUAK

| Pelota     | Taldeak              | N o n     | N o i z    | Futbolsala       | Taldeak              | N o n     | N o i z    |
|------------|----------------------|-----------|------------|------------------|----------------------|-----------|------------|
| Alebinak   | Langile C-Urumea B   | Kio Regia | B har15 00 | Infantilak       | Antigua-Langile      | Donostia  | B har      |
| Alebinak   | Urumea A-Langile D   | Kio Regia | B har15 00 | Benjamínak       | Langile A-Urumea     | Kio Regia | B har11 30 |
| Alebinak   | Langile A-Urumea E   | Kio Regia | B har15 00 | Benjamínak       | Elizako B-Elizako A  | Kio Regia | B har11 30 |
| Alebinak   | Langile B-Elizako B  | Kio Regia | B har15 45 | Benjamínak       | Langile C-Langile B  | Kio Regia | B har12 15 |
| Alebinak   | Txirria-Elizako A    | Kio Regia | B har15 45 | Saskibaloia      |                      |           |            |
| Infantilak | Hernani-Lizarditzedo | Kio Regia | B har17 00 | A lebin neskak   | Langile M-Auxiliario | Kio Regia | B har09 15 |
| Boleibola  |                      |           |            | A lebin neskak   | Urumea-Zumalakarregi | Kio Regia | B har09 15 |
| Kadeteak   | Langile-Landaberriz  | Kio Regia | B har16 30 | A lebin m utilak | Elizako A-Langile A  | Kio Regia | B har10 15 |
| Alebinak   | Elizako Andoaingo ik | Andoain   | B har      | A lebin neskak   | Elizako B-Bm aculada | Kio Regia | B har10 15 |
| Alebinak   | Urumea-M undaiz      | Donostia  | B har10 30 | Erugbia          |                      |           |            |
|            |                      |           |            | Benjamínak       |                      |           |            |
|            |                      |           |            | Benjamínak       | Elizako A-Elizako B  | Kio Regia | Gaur09 15  |
|            |                      |           |            | Benjamínak       | Langile A-Urumea     | Kio Regia | Gaur10 45  |




**yone**  
boutique  
Kale Nagusia 63  
Mila Cuenca Cuestak  
irabazi du  
TENERIFERa Bidaia  
Yone boutiquek eskerrak eman nahi  
dizkie bezero guztiei, bere  
fidelitasunagatik.

## Bideoforuma

### gaur AEKn

AEK euskaltegiak bideoforuma antolatu du gaurko. Arratsaldeko 19:00etan, *Amanece que no es poco* filma botako dute eta gero pelikulari buruzko eztabaidea egingo da. Ekitaldia euskaltegiko bideogelan izango da (Larramendi 11)

Bestalde, asteazken iluntzean poesia emanaldia izan zen, musikaz lagunduta. Emanaldia irekia zen eta bideo gela bete egin zen poesia entzun eta errezitatzeko. □



Poesia errezitatzeko **Hitzak ate joka dator** poesia emanaldian.

## MENDIRIZ MENDI



Mendizale bat azokan, bigarren eskuko materiala probatzen.

## AZOKAK AZKEN EGUNA DU GAUR

MENDIRIZ Mendi elkartea

mendiko materialarekin azoka jarri du aste honetan, elkarteko lokalean. Bigarren eskuko eskiak, botak, txamarrik, motxitak eta abar daude eta erosia nahi dituenak gaurdu azkeneko eguna. Azoka arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, Iturregi plazan.

Bestalde, Mendiriz Mendik asteburu betea du oraingoa. Batetik, eski *alpino* eta *fondo* ikastaroa egingo dute larunbat eta igandean. Bestetik, berriz, gaztetxoentzat irteera antolatu dute iganderako, Etxegaratek Otzaurera, 08:00etan Atsegindigkeitik aterata. □

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### FARMAZIAK

- Egunez: Correa Perkaitzegi 8  
☎ 943 551933
- Gauetan: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6  
☎ 943 363549

## IRAGARKI MERKEAK

Lizeaga kale inguruan GARAJEA erosiko genuke. Deitu: **609 543 900**

Hernaniko Kronika  
intenetan

**dobera.com**  
helbidean

**ADARRA**  
ETXE TRESNAK S.A.  
Txirrita 11  
Tel. 943 55 04 27  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

**Urdin**  
Poltsa, lepoko, pitxi,  
lurrin eta abar  
Italia eta Parisko azken  
moda, Olentzero eta enre-  
geetako zure oparentza-  
ko.

**HASI DIRA  
MERKEALDIAK**  
URDIN OSAGARRIAK  
Montebideo kalea 1 - HERNANI -